



Usurbilgo Udala

AUTO-PARTEKATUA USURBIL






Usurbilgo Udala

Gipuzkoako energia kontsumoaren ia erdia (industria barne), %46¹, garraioari dagokio. Usurbilen berriz, industria kontutan hartu gabe, energiaren %64 mugikortasunera bideratzen da². Beraz, gure mugikortasun ereduak energia kontsumoan eta ingurumenean eragin zuzena du. Baina zer egin dezake 6.300 biztanleko herri batek, mugikortasun eredua aldatzeko?

Zalantzarik gabe, mugikortasun eredu aktiboak sustatzea izan behar du lehentasuna; oinezkoak, bizikletak eta garraio publikoak lehenetsiz. Garraio ereduaren hierarkia edo piramidea argia da.



Aldaketa bat-batean egitea ez da erraza, eta espazio publikoak eta norberaren ohiturak aldatzea denbora behar du. Bide horretan, **Usurbilgo auto-partekatua**, pauso bat gehiago da. **Emisiorik gabea** eta **partekatua**, Udalak bere egunerokotasunerako erabiliko duena eta aldi berean ere herritarrek erabili ahal izango dutena.

¹2050 Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren Zirriborrea

² Usurbilgo Energia Jasangarritasunerako 2008ko Ekintza Plana.



Usurbilgo Udala

Zer da auto-partekatua?

Auto-partekatua ibilgailua izateko beste era bat da, mugikortasunaren kontzeptu berri bat, garraiobideak zentzuz erabiltzea bultzatzen duena, eta beharra sortutakoan, nahitaez jabe izan gabe ere, ibilgailu bat erabiltzeko aukera eskaintzen duena. Sistema honekin mugikortasunaren kostuak gutxitu egiten dira, bai norbanakoentzat, bai gizartearentzat.

AUTO PARTEKATUAREN ZERBITZUARI DAGOKIONEZ

Zertan datza Usurbilgo auto-partekatuaren zerbitzuak?

Zerbitzu honen bitartez, mugikorreko VIVE app-ren bidez, auto elektrikoa alokatu daiteke, erabilitako orduen eta egindako kilometroen arabera ordainduz.

Non dago autoa?

Usurbilgo auto-partekatua kale nagusian, Udaletxe aurrean egongo da aparkatuta

Nork erabili dezake?

Gida baimena indarrean duen eta 18 urte baino gehiago duen orok erabil dezake, baina ibilgailua beti, Usurbilen hartu eta utzi behar da.

Nola ematen da alta zerbitzuan?

Mugikorrean VIVE app-a instalatu behar duzu. Bertan, erabiltzaile moduan alta eman (Argazkia, gidabaimena, NAN-a eta kontu korrontea sartu behar dira) eta onartua izan behar zara. Behin erabiltzaile moduan onartuta zaudenean, autoa erabil dezakezu.



Usurbilgo Udala

Nola eta noiz ordaintzen da zerbitzua?

Zerbitzua txartel bidez ordaintzen da, erreserba egiterakoan. (1,5 €/ordua)

Egindako kilometroak zerbitzua amaitutakoan ordaintzen dira (0,2 €/km).

Ordainketaren, eta alokairuaren kontratuaren informazio guztia mailean jasotzen da

Auto partekatua alokatu aurretik, fidantza edo antzekorik ordaindu behar da?

Ez, auto-partekatua modu arduratsuan erabiltzea denon ardura da.

Auto elektrikoa erabiltzeko gida.

Autoan erabilpen gida bat dago.

ERRESERBEI BURUZ

Nola egiten da erreserba?

VIVE app-ren bitartez egiten da erreserba (Android eta iOS-entzat erabilgarri).

Noiz egin dezaket erreserba?

Edozein momentutan egin daiteke erreserba. (Geheienez ere 24 ordukoak izan daitezke) eta ezin da 2 egunez jarraian egin erreserba.

Aseguratuta nago?

Bai, autoak arrisku orotako asegurua du, 320 €-ko frankiziarekin.

Erabiltzailek kalte edo istripurik balu autoarekin, kalteak ordaindu beharko ditu, geheienez ere 320€.



Usurbilgo Udala

Istripua izanez gero, zer egin behar dut?

Istripua izanez gero, autoko eskularru-ontzian topatuko duzun istripuen Europako partea bete behar duzu.

Autoak ezin badu ibili, errepideko laguntza-telefonora deitu behar duzu, (+34 XXXX), eta bertan azaldutako irizpideak jarraitu.

Bestela VIVE-ko asistentzia telefonora deitu 911 639 481

Nola pizten da autoa?

Mugikorrarekin erreserba eginda daukazun orduan, autora hurbildu, eta mugikorrarekin (bluetooth-a aktibatuta izanda) autoa irekitzen da..

Behin autoa irekita, erabilera gidan zehazten dira hurrengo pausuak (kargagailua itzali, kablea kendu eta ABIATZE botoia sakatu). Ez da giltzarik behar.

Zein da erreserba bakoitzaren gutxieneko eta gehieneko iraupena?

Ez dago erreserba egiteko gutxieneko iraupenik.

Autoa gehienez ere 24 orduko erreserbetarako da eta ezin da 2 egunez jarraian erreserbatu.

Nola alda dezaket erreserba bat?

Luzatzeko, inork aurrez ez badu ordu horretarako eskatu, VIVE aplikazioan luzapena eska daiteke. Edozein arrazoi dela eta, erreserba ordua baino lehen, eskaera bertan behera utzi nahi bada, egin daiteke, eta diru itzulketa egiteko 911 639 481 tlf-ra deitu behar da.



Usurbilgo Udala

Erreserbak web bidez kontsulta daitezke?

Oraingoz ez, epe laburrean web aplikazioa egotea aurreikusten da.

Alokairu kontratuaren informazio guztiak erabiltzaileak mailean jasoko du.

Zer gertatzen da, erreserba aurreikusi baino lehen amaitzen bada?

Erreserba denbora tarte guztia ordaintzen da, nahiz eta ez erabili.

Zer gertatzen da autoa erreserba denbora baino beranduago itzultzen badut?

Erabilera desagokiagatik zigortu egiten da, erreserba kostuaren bikoitza ordainduz.

Autoa beste leku batean utz dezaket erreserba amaitutakoan?

Ez

Beste pertsona batek gida dezake autoa?

Ez. Gastu guztiak erreserba egin duen pertsonari egotziko zaizkio. Isunak eta egon daitezkeen bestelako zigorrak ere bai.

Zein bateria mailarekin topatuko dut autoa?

Erabilera bakoitzaren ondoren, autoa kargatzen utzi behar da beti. (Ez du kosturik erabiltzailearentzat). Hortaz, aparkatuta dagoen momentu oro, kargatzen dago autoa.

Aplikazioan ikus daiteke zer nolako karga maila duen momentu oro.

Nola kargatzen dut autoa erreserba eginda dudanean.



Usurbilgo Udala

Auto partekatua, Usurbilgo bere karga puntuan SOILIK karga daiteke. Erabilera arrunt bat eginez, autoak 450 km-ko autonomia du. Hortaz, Usurbilgo autoa gehienez ere 200 km-ko erradioan erabil daiteke. Erabiltzaile bakoitzaren ardura da erabilpena autonomiari egokitzea.

Mugikorra bateriarik gabe geratzen bazait?

Beharrezkoa da mugikorra beti kargatuta izatea erreserba egin eta amaitzeko, eta baita autoa ireki eta ixteko.

Autoan mugikorra kargatu daiteke. (gomendagarria da kargarako kablea badaezpada eramatea)

Mugikorra bateriarik gabe geratu bazaizu edo galdu baduzu:

- Beste mugikor batetik VIVE app-ra sar zaitezke zure profilarekin.
- Ezin baduzu sartu, deitu 911 639 481 tf.ra.

Nola egiten dut internetik ez badut mugikorrean?

Beharrezkoa da interneta izatea mugikorrean, bai erreserba hasi eta amaitzeko, baita autoa ireki eta ixteko ere. Konexiorik izango duzun edo ez zalantza izango bazenu, mugikorrean app-ko orria kargatuta izatea gomendatzen da, kasu horretan, bluetooth konexioa soilik behar da.

AUTOARI BURUZ

Nola irekitzen da autoa?

Mugikorreko VIVE app-ren bidez.

Zein da auto-partekatua?

Hyundai Kona elektrikoa da autoa.

Zein autonomia du autoak?



Usurbilgo Udala

Erabilera arrunt bat eginez eta bateria 100% kargatuta 450 Km-ko autonomia du.

Autoak ba al du kargarako kablerik?

Bai badu maletategian.

Zer egin behar dut autoa zikin topatuz gero?

Autoa 15 egunean behin garbituko da. Zikina topatuz gero 911 639 481 telefonoan oharra adierazi.

TARIFAREN INGURUAN

Zein prezio du zerbitzuak?

1,5 €/ordua (36 €/eguna) + 0,2 €/km.

Zer barne hartzen du zerbitzu horrek?

Zerbitzuak mantenu, elektrizitate, kilometraje eta asegurua hartzen ditu aintzat. Isun, zigor edo sort daitezkeen kalteak ez dira sartzen, eta norberak ordaintzen ditu asegurutik kanpo geratzen bada.

Bidesariak barne daude?

Ez, bide sariak ez daude barne.

Zer gertatzen da isunik balego?

VIVE aplikazioko administratzaileak momentu horretan erabiltzailea nor den identifikatu eta zuzenean erabiltzaileari iristen zaio isuna.